



**2018KO URTARRILAREN 30EKO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko urtarrilaren hogeita hamarrean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jabier Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Ioseba Hernandez Madinabeitia zinegotzia ez da bertaratu eta ez du ohartarazi bere ezin etorria.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2017ko abenduaren 19an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- GURUTZEKO BERRURBANIZAZIOKO 4. FASEAREN 3. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Gurutzeko berrurbanizazioa, 4. fasea, lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak eta Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak, hirugarren obra egiaztatzea egin dute. Hirugarren obra egiaztatze honen zenbatekoa HIRUROGEI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA BI EURO ETA HOGEITA HEMERETZI ZENTIMO (60.982,39 €) takoa da. Lanak, obra hau aurrera eramateko Iparragirre S.L., Orsa S.L. eta Iturrioz S.A.k osatutako A.E.B. ari da burutzen.

Udal arkitekto teknikoak obra-egiaztatze hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, hirigintza obra eta zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, aho batez, Gurutzeko berrurbanizazioa, 4. fasea lanen hirugarren obra-egiaztatze onartzea erabakitzen du.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-



Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hiru direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDAL A